

Bilboko Okelan, 2017-6-22. “Bakea” AMP. Oier Iruretagoiena

Sorkuntzan, aukeratzen ditugun erreferentzia eta materialen eta hartzen ditugun erabaki guztien atzetik, badira hartara garamatzaten geruza gehiago, bakoitzaren afektu eta interesei dagozkienak, azken emaitzan esplizituki agertu beharrik ez dutenak eta hartzailearentzat beharrezko ere ez direnak, baina lanak prozesuan hartu dituen bideak hartu izateko paper garrantzitsua bete dutenak. Geruza horiei buruz hitz egingo dut gaur batez ere. Zehazki, gertaera biolentoak kontatzen dituzten bi kantuk nire lanean izan duten paperaz hitz egingo dut, kantu horien letrari buruz hitz egitea errazagoa baita nire lanaren azken emaitzei buruz hitz egitea baino, baina aldi berean, emaitza horietan zeren bila ibili naizen ulertzen ere lagun dezakete.

Horren aurretik, azalduko ditudan kokatzen lagunduko duen sarrera bat egingo dut. Eta hasiko naiz, norekin eta Kantekin. Filosofoarekin. Ederra eta sublimea nola definitzen dituen, baina batez ere sublimea nola definitzen duen interesatzen zait. Ederra; sentimendu atseginak eta positiboak sortzen dituen litzateke. Eta sublimea berriz, anbiguitasun handiko sentimendua, minaren eta plazerraren arteko nahasketa batean ematen dena. Honako kasuetan emango litzateke, Kanten arabera: Paisaia malkartsu baten aurrean gaudenean, ekaitza lehertzen denean, sute baten lekuko garenean, edo ozeanoaren zabala ikusten dugunean, besteak beste. Horietan denetan, geure gorputza munduaren aurrean zeinen txikia den sentitzen dugu, eta ulertzen dugu zeinen erraz desegingo gintukeen hondamendi natural batek. Gureak egingo luke tximista batek joz gero, itsasoaren erdian galduko bagina, edo lurjauzi batek harrapatuko bagintu. Horregatik, Kantek dio, paisaia eta fenomeno horiek berez duten arriskugarritasunaren aurrean sortzen zaigun beldur edo angustiarri buelta ematen diogula plazer sentimendu batez, eta plazer hori, beldur edo angustiak bustita, plazer are intentsoagoa bilakatzen dela. Beti ere, arrisku bizirik edo larritasunik ez badago gertatzen da hori. Alegia, sute bat ikusten badugu, segurtasun distantzia batetik ikusten dugunean, edo ozeanoaren erdian galduta egon baino, hori gertatzearen posibilitateaz pentsatzen ari garenean. Min bat baino, giro mehatxugarri bat litzateke beraz, hauskortasun sentsazioa. Eta hor ematen da berak sublimea deitzen diona.

Kontestu oso ezberdin batetik dator Kanten adibidea, eta izugarri gaineratik eta sinpletuta azaldu dut. Esan beharko dut gainera nik ez dudala Kant irakurri, eta Eugenio Triasek hari egindako aipamenaren aipamena dela nik egindakoa. Baina egokia da orain datorrenaren sarrera gisa. Hauskortasun irudipenak lagundutako halako plazer bat identifikatu genezakeelako kultur sorkuntza askotan ere. Literaturan, zineman, artean... Geure ohiko arauak eta segurtasunak apurtzen dituen mundu bat irudikatzen denetan gertatuko litzateke, fikzioa dela jakiteak jartzen duen distantziarekin.

Esaterako, hala gerta liteke fantasiako istorio baten kasuan, geure munduaren ohiko mugetatik ateratzen den zerbaitetan. Baina hauskortasun sentsazio hori emango litzateke, batez ere, fantasiaren eta errealtatearen arteko tarte oso estu bat, anbiguitate bat mantentzen bada. Artetegarriena ez litzatekeelako leku urrun edo guztiz irudimenezko batean dragoiak, zonbiak eta denbora-makinak kokatzea, baizik esaterako, Bilbo den bezala hartu eta xehetasun sotilen bat deskolokatzea, horrela Bilbo arrotzuz, ezaguna eta familiarra dena bestelakotuz. Gurekin zerikusirik ez duen mundu aparteko batek baino ezinegon handiagoa sortzen du geure munduan arrakalak sortzeak, geure tankerakoa baina guztiz behar bezalakoa ez denak. Eta fantasiara jo gabe, izan liteke sinpleki fikzio horren barruan ezbehar bat gertatzea, ordenaren hauskortasuna erakusten duen gertaera bat jazotzea, halako beste bat noiz etorriko den jakin gabe.

Eta beste adibide bat jartzeko, plazer ezeroso hori eman liteke edozein gauza groteskotan ere, arrarotasun edo desegokitasunen bat dutenetan, kasu batzuetan aldi berean barre eragile eta batere barregarri ez denaren anbiguitatean. Gorputz atalen baten ezohikotasuna, heldu begirada duen haurra, haur ahotsa duen heldua, sabelhiztuna, bizidun bilakatzen den objektu bizigabea, portaera gizatiarra duen animalia, etabar. Esan bezala, orekan legoke gakoa, eta balantza ezohikoaren aldera gehiegi erortzekotan, galdu egingo litzateke geure errealtatearekiko tentsio hori. Esaterako, pentsa derrepente ahots ezberdin batekin irakurtzen jarraitzen dudala puntu honetatik aurrera. Artetegarriena aldaketa hori sotila izatea izan liteke. Nire ahotsa dela baina soilik pixkat umetua dagoela nabaritzea adibidez, ahotsa erabat aldatzea baino.

Zerbait bestelakotzea, bada zerbait horren berezko nolakotasunak seinalatzea ere. Lokartutako pertzepzioei eta automatismoei buelta emateko modua. Errekonozimendu hutsa egin ordez, gauzak bere horretan ikusten laguntzea. Adibidearekin jarraituz, nire ahotsa nire ahotsa izan dadin, benetan haren tinbrea entzun dezagun, berez ez dagokion zerbait egin diezaiokegu.

Sarrera hau eta gero, eta nire lanaren kasura etorrira, aipatutakoak bezalako arrarotze, bestelakotze eta anbiguiteak oso kontutan hartzen saiatu izan naiz. Lan bat amaitutzat emateko bete behar dituen baldintzen artean daukat batean edo bestean kokatzen jakingo ez genukeen izaera arraro bat irabaztea. Ahal bada, aldi berean izan dadila erakargarria eta siniestroa, aldi berean sinpatikoa eta mehatxugarria, maitekorra eta biolentoa, grazioso eta nazkagarria, dotorea eta baldarra, ezaguna eta arrotza. Eta hori dena aldi berean izatearen ondorioz, ez dadila horietako ezer izan, sailkatzen jakingo ez genukeen beste zerbait baizik. Hau ideal bat da noski, gero ahal dudana egiten dut, eta ateratzen denarekin konformatzen naiz. Baina ideal hori lortzeko gogoak eramaten nau lan bat bestearen atzetik egitera.

Bakarkako azken erakusketa duela urte t'erdi egin nuen, Bilbon, Carreras Mugican, eta porlanezko buruen serie batek osatzen zuen batez ere (Fig. 1). Ez zuten azpegirik, ez sudurrik, ezpainik, belarririk. Nabaria zen mailuarekin kolpeka kenduak zeudela, eta kako handietatik zeuden zintzilik jarriak. Lan ederrak egiten saiatu nintzen, eta izaera biolento eta keinu inkonoklasta argia ere bazuten; kolpeengatik, zintzilikatzeko moduagatik, eta buru moztu batek izan ditzazkeen konnotazio guztiengatik. Umorea ere sartu nahi izan nuen, eta *Gazta-hezurra / El hueso del queso* jarri nion erakusketari izenburu, euskaraz eta gaztelaniaz, nahiz eta errima dela eta gaztelerazkoa izan zen egiatan funtzionatu zuena, *El hueso del queso*. Aldrebeskeria grazioso edo errimadun izen sinpatiko moduan jarri nuen, baina jatorria identifikatzen zuenarentzat izan zezakeen alde siniestroago bat ere.

Hezurdun gaztaren ideia hori kanta herrikoi batean agertzen da, eta hilketa baten kontakizuna egiten da bertan. *Bereterretxeren kanthoria* du izena, Zuberoakoa da, XV. mendekoa. Ezagun egin zen Mikel Laboak kantatzen zuelako. Leringo kondeak Bereterretxe familiako kide bat engainuz nola hil zuen kontatzen du. Hala hasten da kantuaren letra:

Altzak ez du bihotzik, ez gaztanberak hezurrik / Ez nian uste erraiten ziela aitunen semek gezurrik.

Estrofa labur hori eta gero, hilketa nola gertatu zen kontatzen zaigu. Kondea, bere zerbitzuko hiru dozena gizonekin joan zen Bereterretxeren bila gauez. Etxetik aterarazi zuen, ezer gertatuko ez zitzaiola eta berehala itzuliko zela esanaz. Eurekin eraman, zuhaitz bati lotu, eta bertan hil zuten.

Gaztanberak hezurrik ez izatea eta haltzak bihotzik ez izatea gauzen orden berezkoaren, harmonia, oreka edo bake baten erakusgarri bezala erabili dira, eta berdin esan zezakeen ez duela harriak begirik, edo amurrairak ez duela arnasik hartzen uretatik kanpora. Ordena aurkezten duen lerro hori eta gero dator ezbeharra, eta ikusten duzuenek, gizakiaren gaitz eta gezurrak dira bake hori apurtzen dutenak. Zuzenean hilketa kontatuta baino askozaz dramatismo handiagoz jantzen du hilketaren kontakizuna hasierako lerro bakar horrek, eta batez ere, lerro horretan botatzen dizkiguten irudi groteskoek. Haltza bihotzdunak eta hezurdun gaztak. Haltzak ez luke bihotzik behar, eta gaztanberak hezurrik ere ez. Aipatu hutsarekin irudikatzen ditugu ordea geure buruan haltza bihotzduna eta gaztanbera hezurduna, eta ordena apurtzen duten irudi mehatxugarri moduan azaltzen zaizkigu.

Bide batez, ez dakit zuek, baina nik albarikoke edo melokotoi batena bezalakoa irudikatzen dut gaztaren hezurra. Esan beharko dut bidenabar, gazta eta gaztanbera ez direla gauza bera, mami modukoa baita gaztanbera, baina kanta entzun izan dudanean gazta ondo ondu bat imajinatu dut beti, eta nire buruan gazta izaten jarraitzen du. Horregatik, batzuetan gazta esan dut nire gogoari jarraituz, eta beste batzuetan gaztanbera, jatorrizkoa errespetatuz.

Bigarren adibidera pasako naiz orain. Eta beste kanta bat aztertuko dugu. Gaur egun ahaztua dagoen baina 70. hamarkadan oso arrakasta handikoa izan zen *Usurbilgo eliza*. Urkok egin zuen musika, baina guk Joxanton Artzeren letrari erreparatuko diogu. Paralelismo handiak ditu Bereterretxeren kanthoriarekin. Hura bezala, ordena eta ongizatearen deskribapen batekin hasi zen Artze, gero ongizate horren ifrentzua erakusteko. Hala hasten da letra: "*Usurbilgo elizaren hormak, zein horma sendoak / Bere zulotan txoriek dituzte, habiak egiten / Han dira sortzen, han, beren kantuak toteltzen*". Elizaren sendotasuna goratzen du beraz, txorien bizileku dena. Eta gero: "*Edergailu bakoitza, harri bakoitza / Zenbat izerdi, odol eta nigar kosta ote zitzaizkien ameriketako inditarrei? E, Etxebeste jauna? / Eta goiko dorre luze hori, Usurbilgo eliza nagusiaren dorrea da*". Galdera luzatzen dion Etxebeste hori Francisco de Etxebeste da, XVII. mendean jaiotako usurbildarra, militarra eta Amerikako kolonien kudeatzailea. Bere poltsikotik ordaindu zuen Usurbilgo eliza nagusiaren handitzea, itxura guztien arabera eta Artzek salatzen duenez, Amerikako esplotaziotik letorkeen diruz. Kolonialismoaren aurkakoa, eta elizaren eta haren indarraren aurkakoa ere

bazen kanta. Ez zuen kasualitatez idatzi Artzek 60. hamarkadako sekularizazio urteetan.

Herriaren zentroa den eraikin hori, horma sendo eta kanpaidorre ederduna, txoriek beren habiak egiten dituztena, eta Artzek esan zezakeen bidenabar, hura izan zela urte asko eta askotan usurbildar gehienentzat asteen zehar ikusi gabeko lagunak, igandeko meza ondoren agurtzeko bilgunea ere, egin behar zen edozeren zentroa. Gertukoa eta maitea den lekua indarkeriarekin eta bidegabekeriarekin lotzeak bestelakotu egiten du.

Duela urte batzuk Usurbilgo elizan hartutako argazki bat erabili nuen lan baterako, ez printzipioz kantuagatik, kasualitatez han topatu nuen pintada batengatik baizik. Ez dut azalduko nolakoa zen lan hori, luzeegia eta nahasgarriegia litzatekeelako orain horrekin hastea, baina zuloei eta elizei buruzkoa zen funtsean, eta hara non “ZULUA” zioen pintada bat topatu nuen han, Usurbilgo elizako horma sendo horietako batean. Inork ez du sinestuko nik egin ez nuenik, baina hantxe topatu nuen. Nahiz egiten ari nintzenarekin zerikusi zuzenik ez izan, banekien argazki hura ateratzera neramaten arrazoiaren artean zegoela kantua eta kantua inguratzen zuen guztia. Usurbilgo eliza da, eta ez Elgoibarkoa edo Bermeokoa edo beste edozein, eta badauka, baduenez, besteek ez daukaten pisu bat, Artzeren olerkiak eta Urkoren kantak eman diotena. Azken emaitzan esplizitatzen ez den arren, prozesuan motore lana bete zuen erreferentzia horrek, argazki hori erabiltzera bultzatuz. Tartean sartzen zitzaizkidan 70. hamarkadako kontestu gatazkatsuarekiko interesa, Urkoren kantekiko eta Artzeren olerkiekiko lotura, elizaren arkitekturak sortutako erakarpena eta salaketak agerian jarritakoarekiko arbuioa. Erakarpenaren eta arbuioaren arteko sentipen ambiguo hori langai ona izaten da.

Hasiera-hasieran azaldu bezala, ikusleak ez ditu zertan geruza horiek ezagutu, baina ezagutuko litzukeenarentzat, hor daude, niri ihes egiten didaten geruzak ere sartzen diren bezala.

Lan hura, hemen ikusten dituzuen poster hauek aurkezterako orduan (Fig. 2), garrantzitsua zen niretzat Usurbildik gehiegi ez urrutiratzea, eta Donostian aurkeztu nuen azkenean, oso gertu beraz. Lan horren hartzaileak noizbait Usurbilen egonak izatea nahi nuen, edo izan zezatela senide edo lagun usurbildarren bat, edo izan zitezela usurbildarrak eurak berak. Eduki zezatela herri horrekiko lotura afektibo edo memoriaren bat, ez zedila izena baizik ez zekiten leku urrun bat izan. Gertukoa eta maitea dena arrarotu nahi nuen hala.

Bi biolentzia kasu ikusi ditugu, kanta banatatik jasotakoak. Nolakotasun askotakoak izan litezke indarkeriak, baina bi hauek antzekotasun handia dute euren artean, biak ala biak direnez gero klase menperatzaileak eragindakoak. Bereterretxeren kanthoriaren kasuan, Leringo kondeak ekintza hori burutzeko boterea eta inpunitatea dituela ondorioztatu liteke. Hiru dozena gizon izan zituen bere zerbitzura biktimaren bila joateko, eta aipatzen da halaber, ehun behi eta zezena dituela kondeak, bere indarraren erakusle. Behin hilketa burututa, ez du damurik erakusten eta bai kontrara burla-haizerik. Amerikaren kolonizazioaren kasuan, egiazko erlijioaren izenean zilegi kontsideratu zen indarkeriaren erabilera. Kolonizazioaren lehen urteak gertutik ezagutu zituen Bartolomé de las Casas fraideak seinatu zuen egiten ari zirenen kontraesana. Kristok bere apostoluei esan bazien, otso artera bidaltzen zituen ardi otzanak zirela haiek, kolonoak, kontrara, ez zirela ardiak sarraskitzera joandako otsoak besterik. Horiek dira ekintzarik laidogarrienak eta mingarrienak, biktima erabat indargabe sentiarazten dutelako. Julia Kristevak, abjekzioari buruz idatzitako kapitulu baten, hala dio, abjetoetan abjetoena; alegia, min eta frustraziorik handiena eragin lezakeena; kontzientzian kulparik ez duen eta ongile ustean dabilen hiltzailea, lotsarik gabeko bortxatzailea, traidorea edo gezurtia direla. Krimen oro da abjektoa, ongizatearen hauskortasuna erakusten duenez, baina are gehiago odol hotzez eta zigorgabetasunez prestatutakoa, hauskortasunaren exhibizioa egiten duelako.

Friboloa eman lezake, halako gertaerak tartean daudenean, esaten hastea zein eder kontatuak dauden gauzak, zelako estrofa apartak, horiek irudi grotesko bikainak! Zer esanik ez, esaten hastea plazer ezeroso bat sortzen digula kontatutakoaren dramatismoak sortutako hauskortasun sentazioak, Kantek tximistak ikusten zituenean bezala. Besteren minaren kontura olgatzea dirudi. Baina arteak badu bere espezifikotasuna eta autonomia, bere lan egiteko modua eta indarra. Eta ez da gezurra esatea, Bereterretxeren hilketaren berri gaur arte iritsi bazaigu, norbaitzuek 5 mendetako ahozko ahoko transmisioaren galbahea pasa duen kantu indartsu bat egin zutelako dela.

Hasieraldera esan dut, zail dela nire lanaren azken emaitzei buruz hitz egitea eta errazagoa dela kanta hauek bezalako erreferentziei buruz jardutea, letra edo testua direlako. Nire azken emaitza horietan zerren bila ibili

naizen ulertzen lagun dezakete hala ere. Prozesuan akuilu izan badira, nire lanerako nahiko nukeen izaera bat dutelako da. Eta izaera horretan sartzen da beste gauza askorekin nahastuta datorren biolentzia baten presentzia, bi kantetako lehen lerroetan deskribatutako ongizatearekin kontrastean. Afektuen eremuan sartzen gara hemen; afektuak, gustuak ez esatearren. Eredu horretan oso zail dira kontuak azaltzen eta arrazoitzen, baina faszinazio hori esplikatzekeo saiakera izan da Kantek sublimeaz egindako azalpena hona ekartzea. Adibide zehatzak ematen saiatzekotan, nire eskulturen kasuan, prozesuko markak oso nabariak izan ohi dira, eta erraz igerri liteke non gehitu dudan zati bat, non moztu, non apurtu... Lehen hitz egin dut apur bat buruei buruz. Haietan bezala beste askotan, agerian utzi da tiraka, bultzaka edo kolpeka kendutako zatiak falta direla. Bortxa bat jasan izanaren lekukotasuna ematen dute, baina aldi berean dena modu oso maitekorrez eginga dagoela esango nuke, eta umoreari ere lekua ematen saiatzen naiz.

Lagun baten lagunak esan zidan, bere lagun batek esan ziola, eskultore kataluniar bat ezagutzen zuela, santuak-eta zizelkatzen zituena. Taillak amaitzen zituenean, mendiko pendizean behera botatzen zituen, eta ibili zedila santua dinbi eta danba, harri eta zuhaitz guztien kontra. Oso identifikatuta sentitzen naiz ekintza horren alde bateko indarkerian, eta besteko kirtenkerian.

Bi kantari buruz hitz egin dut eta ez dugu bakarrik entzun, baina denbora faltak ez digu horretan utzi. Ezagutzen ez dituenak eta entzun nahi lituzkeenak, erraz topatuko ditu youtuben Bereterretxeren kanthoria eta Usurbilgo eliza.

Eskerrik asko.

Fig. 1




Fig. 2

